


36» Coldplayk ikuskizuna eman du Kobetamendin, 37.500 zaleren aurrean, BBK Live jaialdian



baten aurrean, Donostian jarri duen erakusketan. JON URBE / ARGAZKI PRESS

Etxeko arte girotik edan duen artista

Antonio Valverde 'Ayalde' margolaria aita zuen, eta Rosa arreba nagusiak ere pinturaren bidetara heldu zion

A.S. Donostia

Gaztetxoa zen Javier Valverde aita hil zitzaizenean, Antonio Valverde margolaria. Oartzungo Ayalde etxean bizitako giroak eta aitak utzitako ondare artistikoak izan du eraginik haren lanetan, baita Rosa arreba margolaria izatean ere. «Baietz uste dut, beti bazen han norbait, beti bazen jendea eta mugimendua, Arantzazuko fraide bat, Mikel Laboa edo Oteiza bera». Antton Valverde anaiaren musika munduko lagunak ere pasatu izan ziren handik.

Aitakerbaitetan eragin bazioz kritikotzat eragin ziola uste du Valverdek. «Lan hau oso kritikoa da nirekiko, eta uste dut ongi ikusiko lukeela: gauza bat ez dudanean gustuko, kanpora, zalantzarik gabe! Horrek niretzat inportantzia handia du, ez edozein gauzarekin konformatzea. Bera ere halakoa zen». Antonio Valverdek ere «Euskal Herriarekiko eta paisaiarekiko maitasun izugarria» zuela dio Saguesek, eta «gizakiaren astakeriak ikustean asko sufritzen» zuela. Gogoan du duela 50 urte inguru lehen argindar posteak jarri

zituztenean gizonak hartu zuen «disgustua». Etxetik jaso zituen horiek guztiak semeak.

Arrebarengandik ere izan zuen zer ikasia, bien lanak erabat ezberdinak, «eguna eta gaua bezala» diren arren. «Gu ere halakoak gara», dio barrez, eta, hala ere, oso ongi moldatzen dira. «Biek dute umorea lanetan», dio Saguesek. Aitaren margogintza klasikoagoa zen arren, «bere grabatuak eta gaiztakeriak ere» egiten zituela gogoratu du semeak, bazuela hark ere umore puntu hori.

Arrebaren bidez Bixente Ameztoty, Juan Luis Goenaga, Ramon Zuriarrain eta Jose Luis Zumeta ezagutu zituen garai hartan, besteak beste. «Bere lagunak ziren, etxera etortzen ziren, eta handik nenbilen niera». Haiek artea ikusteko zuten beste modu horrek ere izan zuten eraginik beregan. «Oso garrantzitsuak izan ziren niretzat. Ni mutil koxkorra nintzen, eta haiek beti haiekin joateko esaka... oso irekiak ziren». Hamaika kontu bizi izan zituzten elkarrekin. Pintatzeko ere elkartu ziren behin edo behin. «Bixente etxera etorri eta, agian, izkina batean jartzen zen, koaderno batean marrazten... eta, bat-batean, gauza zoragarri bat», gogorarazi du Saguesek, erakusketaren komisarioa ez ezik Valverderen iloba ere badenak. Haren obran Ameztotyren «eragin handia, miresmena, errespetua» ikusten ditu.

Hazteko asmoz jaio da Arteando arte garaikidearen azoka

Hilaren 21ean hasiko da Irungo Ficoban; kultura eta jarduera ekonomikoa uztartu nahi dituzte

Idoia Bengoetxea Irun

«Arte erakarpen polo bat» eraikitzea, «urtez urte eratuz eta finkatuz joango dena». Helburu hori buruan antolatu dute Irungo Ficoban Arteando arte garaikidearen azoka. Uztailaren 21ean hasiko da, eta 26an amaitu. Hamazazpi galeriatan, 150 artista ingururen obrak egongo dira. Munduko «bakter guztietako» artistak izango dira, antolatzaileen arabera, sortzaile «ospetsuak nahiz hasiberriak». Besteak beste, pintura, eskultura, argazkigintza, grabatua edo bideosormena oinarri izango duten artelanak erakutsiko dituzte. Horrez gain, bost *project room* (proekzio aretoak) jarriko dituzte, «abangoardiako artistentzat», Marta Scarpelli azokako zuzendariak azaldu duenez.

Marta Scarpellirekin batera, Ignacio Scarpelli izan da azoka antolatzaileen arduraduna; biak ere eskarmentu handikoak dira arte erakustazokaren munduan. Ekimena Irungo, Hendaia eta Hondarribiko udalekin eta Kutxaren babesarekin prestatu dute, eta sarrera doan izango da

Ez dagoena, sortu egin behar

Ignacio Scarpelli adierazi du hasiera batean «er bait handiagoa» egitea pentsatzen zutela baina «denbora falta» ibili direla. Hala ere, haren hitzetan, «txikiak hasteara ez dago hain gaizki, lehen enbrioia sortzea da garrantzitsuena».

Idea bera errepikatu dute gai-

nontzeko antolatzaileek ere. Jose Antonio Santano Irungo alkateak argi du «gero eta garrantzitsuagoa» den artearen munduan «protagonismoa» lortzeko arriskatu egin behar dela. Aitor Kerejeta Hondarribiko alkatea ere ados dago: «Hasierak beti dira zailak, gure helburua pixkanaka erreferenteak bihurtzea da». Hendaiaiko alkate Jean-Baptiste Salaberrik ere konfiantza azaldu du azokaren arrakastan.

Scarpellik gaineratu du Arco Madrillgo Arte Garaikidearen Nazioarteko Azoka sortu zenean ere batzuek «erokeriatzat» jo zutela. «Espainian kolekzionismorik ez zegoela zioten. Ba horixe bera sor-

Hamazazpi galeria, 150 artista ingururen lanekin, turistentzat amua izateko

tzeko antolatu behar zen azoka». Artearekiko zaletasuna sortu egin behar da, haren ustez. Babesleentzat, horretarako baldintzat egon badaude: «Giza baliabideen aldetik badago mamia, artistak eta. Ficoba oso azpiegitura ona da, gehiago aprobetxatu behar dugu», adierazi du Kerejetak. Kutxako Gizarte Ekintzako ordezkarri Carlos Ruiz iritzi, «kolekzionismoa elitearekin lotzeari utzi behar diogu». Horrez gain, ekimena ekonomikoki neurtzearen garrantzia aipatu du.

Santanok esan du kultura «ekonomiarri lotuta» ikusten duela: «Ekonomia kreatiboa deitzen diote, ekimen kulturalak egon behar dute, eta jarduera ekonomikoarekin lotuta badaude, hobeto». Alde horretatik, udan Bidasoaldera hurbiltzen diren «milaka turistak» erakarri nahi dituzte azokara bertakoez gain.

→ Laburrak

Raimundo Amadorrek Gasteizen joko du 22an

MUSIKA › Raimundo Amador gitarrista Gasteizko Falerina lorategian ariko da hilaren 22an. India hegoaldean edateko ura bihurtzeko planta bat eraikitze-bera bideratuko dute kontzertuaren hiru udalerrietan, Irun, Hondarribia eta Hendaian egingo dituzte jaialdiko kontzertuak, abuztuaren 19tik 21era bitarte.

Vieux Farka Toure ariko da Bidasoa Folk jaialdian

MUSIKA › Hamaikagarren urtea beteko du aurtan Bidasoa Folk jaialdiak, eta, bertan parte hartuko duten musikarien artean, Vieux Farka Toure maliarra ariko dela jakinarazi dute antolatzaileek. Macka B and The Roots Ragga talde ingelesarekin partekatuko du kartela, besteak beste. Txingudi badiako hiru udalerrietan, Irun, Hondarribia eta Hendaian egingo dituzte jaialdiko kontzertuak, abuztuaren 19tik 21era bitarte.



Kultura eta aisia
euskaraz
Donostian

Antzerkia

● **Baginaren bakarrizketak**
Txalo Produkzioak
Aktoreak: Aitziber Garmendia eta Ainhoa Garai
Uztailaren 7tik 10era, 20:00etan
Antzoki Zaharrean
Sarrera: 18,15€

Literatura

● **36. Liburu eta Disko Azoka**
Uztailaren 16ra arte
Gipuzkoa Plazan
Liburu Azokan Batzordeak antolatuta

● **Poesia errezitaldia**
Bitsa eskuetan
Miren Agur Meabe
Uztailaren 13an, 19:30ean
Liburutegi Nagusiko ekitaldi aretoan (San Jeronimo)

Dantza

● **AEBtako dantza taldeak**
19:00: Oinkari taldea (Boise)
23:00: Amuma Says No (Boise)
Uztailaren 9an, Añorgan
Añorgako festak

Pailazoak

● **Hipo eta Tomax**
"Beldurraren etxean"
Familia osoarentzat
Uztailaren 10ean, 17:30ean
Txofre plazan

Ikus-entzunezkoa

● **Añorgatarrak**
Uztailaren 10ean, 11:00etan
Rezola museoan
Doan
Añorgako festak

Haur Aisialdia

● **Ipuina: Kontu-kontari, fantasiaren erori**
Uztailaren 11an, 18:00etan.
Ipuinaren ordua. Adina: +5
Urgulleko liburutegian
Urgullu uda 2011 ekimena

● **Natura: Baratz preparatzen**
Uztailaren 12an, 18:00etan.
Urgulleko Natur Txokoan
Urgullu uda 2011 ekimena

Bisita gidatua

● **San Telmo museo**
Bisita gidatua asteburuan
Euskaraz: 11:30etik 17:00etara
Bizarrain aldez aurretik:
943 481580 telefonoan
Prezioa: 3 € + sarrera

Euskara

● **Mintzalagunak Altzan**
Mintzapraktika egiteko ekimena
Parte hartzeko: 943 397464
bizarrain@altza.net
www.blogak.com/bizarrain
Bizarrain elkarrekin antolatuta